Gaztelu joan zaigu

Inongo hots handirik gabe, isilik joan zaigu Joan Inazio Goikoetxea "Gaztelu" olerkari aipagarria, Erregen egunez Donostian hila. Iduritzen zait, bere balioaz ez ginela gehiegi ohartu, eta bere galeraz zer esanik ere ez. Gaztelu, bere gogoz, inorekin buruabat eginik bazegon, bere herriarekin zen eta gure nortasuna hizkuntzaren bidezko elkartasunean ikusten zuen. Axularren esaldi hura beretzat hartuz: "Mihian da ezagun nor den bat bedera". Eta, bere olerki batean hala azalduko zigun:

mintza, kide,
nahiz garbi
edo lizun,
nahiz gordin
edo txukun,
mintza bederen
hil ez gaitezen...
hitza da
elkarren
ezaugarri,
ba gerala
jakitearren...

Apala ez ezik, barnerakoiegia zen bere gogoaren garra, herriaren aurrean kementsu azaltzeko, eta horrek ezkutatzen zuen gure uste zintzoan oso goiko mailetan jarria behar zuen olerkariaren izena. Jakintza mailan ere, ez zen nolanahikoa, eta horren kezka ere bere olerkietan nabari da:

hutsetik bizi da
nere jakin gosea
zulo bat bezela
ondorik gabea:
ez da iñoiaz betetzen
nere jakin-gurea...

Olerkiok dira pertsona beraren iduriz eginak, eta, Gaztelu joanaz, poeta bat gutiago euskal-parnasoan.

1908.urtean jaio zen Gazteluko Bordatxuri baserrian, Larte mendipean, Kaputxino ordenan osatu zituen bere ikastaroak, Altsasun, Hondarribian, Lizarran eta Iruñean. Gazterik hasi zen olerkigintzan eta 1934an eman zion lehenengoak **Yakintza** zeritzan aldizkarian argitaratzeari. Gerrak barreiatu zuenetarikoa genuen eta Ameriketan zenbait urtean bizia, Argentinako Llavallol, Mar de Plata, Córdoba eta Mendozan. 1958an itzuki zen eta geroztik apez, Donostian. Baina, buru-belarri euskal gaieri emana. Buenos Aires-ko **Euzko-Deia**, Guatemala eta Miarritzeko **Euzkogogoa**, eta hemengo **Zeruko Argia, Egan** eta **Olerti, aldizkarietan argitaratu zituen bere lanak.**

Inoiz saritua ere izan zen, eta aipagarrienen artean 1970 eta 1971. urteetako Irun sariak jaso zituen poesian.

Bere olerkirik gehienak etsipenezkoak dira. Bizitzako gertakariak eta harat-honat ibili beharraren eraginak tajutu zuen bere izaera:

otanik gabe
gabiltza gizonok
galdu
gordean,
norakorik gabe
ontzia bezala
jitoan.

Baina, ez ordea bizi nahirik ez zuelako, ez. Ohartzen zen mutur batetik bestera, ezkortasunetik baikortasunera, ez eta bai elkarregandik hurbil zebiltzala maizenik. Horregatik, esango zigun:

alkarri musuka dabiltz
gaua eta eguna
argia eta iluna.

Gizonaren neurria, izanaren kosmos barnean txiki zela adierazteko. Baina, biziari ukorik egin gabe, zeren.

ona da bizia
bizitik at deusik ez da
bizia du gizonak hazta ta neurri
horregatik dario alai iturria
horregatik doa kantuz txoria
horregatik da usaidun lilia...

Ausart agertuko zigun. Gizonaren dimentsioa bere tokian kokatu ondorean, gutietsiaren barnean, bizitzaren zentzua edertuz.

Joan Inazio Goikoetxea "Gaztelu"-ren lanik entzutetsuena **Musika ixilla** deritzana da, 1962. urtearen azkenaldera argitaratua. Fray Luis de León eta San Juan de la Cruzen olerki euskaratuak dira, Orixe zenaren hitzaurre aberatsa zeramen eta Gaztelu beraren zenbait ohar, gaztelerazko autore bien bizitza eta euskal metrikari buruzko eraskina. Itzulpenean saiatu zen neurriaz gainera hitz-neurtuak azentu bidezko erritmoz ematera, irakurgai aldetik hotsen doinuz jazteko, atseginagoa izan zezan.

Gaztelu ez zegoen ados Etxeparegandik orainarte poesien metrika hertsiez jarraitu den erakin. Bere ustez, horrez gainera bazen beste edergarri bat ere, azentuaren erabilkerarena. Euskaltzaindiko urgazlea zen aldetik, igazko ekainerako hitzaldi bat eskaini zigun gai hortaz, baina ordurako osasunez oso makalik zebilean eta agindua ezina bihurtu zitzaion. Gai hortaz zituen pentsamenen zati batzu argitara bazituen ere, gehienak berakin eroan ditu hilobira.

Auñamendi argitaldariko **Español-Vasco** hiztegia, B. Estornés Lasaren eragintzaz eta zuzendaritzaz eroan bazen ere, antolaketa eta idazmoldea Gaztelurenak dira. Sei tomotan A letratik C-ra arte baizik ez dira argitaratu. Tajuz egina da eta merezi luke lan horren jarraipenak, bereziki Gazteluk burutu zuen partearena.

Hala ere, Gazteluren bailiorik handiena olerkaritzan datza eta **Olerti** eta beste zenbait aldizkaritan argitara zituenez gainera, Irun sariko biak hautatuko nituzke, Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzialak 1972an bi liburutan argitaratuak: **Gauean oihu** eta **Biziaren erroetan**. Bietan bada gauza bitxirik, bai azalez eta bai mamiz. Lehena, Vietnan-go gerra oraindi hurbil eta bizirik zegoen garaikoa, hango gertakariak eta heriotzak gizonki salatuz. Bere barnerakoitasunetik inoiz ez zen agertu hain ausarti. Azaltzen digunaren arabera, badirudi bere erraietaraino erretzen zuela gerra mingarriak. Baina, bigarren liburua, bere izenburuan dion bezala, **Biziaren erroetan** dabilen olerki mina da. Bere izatea bere herriko lurrarekin lotzen du, maiz panteista taxurako ideak agertuz bere sentipenik sakonenetan lurraren barne-taupadak jasoaz:

hire muño gurietan
hire baso ta oihan itsuetan
hire mendi ta arkaitz gorrietan
etzin nadi naizen hau zabal...

Bere heriotzaren loa oparitzat sentituko zuen bezala. Lagun urkoenganako maitasuna bizi agertuko digu, etsipenen barnean ere. Liburua, amona Gregoriri eskainitako hileta soinuz bukatu zuen, maitasunaren lokarriak heriotza bera baiño haruntzago eraman nahirik:

zein gogor den biziak alkartu gindunok
bereiztea alkargandik,

Beste honako hitz hauekin bere guraria bete nahirik:

Amona Gregori:
oraindaiño bizian lagun zindugunok
lagun gaituzu aurki hilik
lurrean
guztion altzoan...

Juan SAN MAR

El fallecimiento de Juan Ignacio Goico "Gaztelu" ha supuesto una gran pérdida p la literatura vasca. Su obra poética es mo dora de un nivel superior a la fama alcanz por el hombre en vida. Aparte de los libros p blicados, la mayor parte de su obra está perdigada en las revistas literarias ***Yakin Euzko-Deia*** *de Buenos Aires,* ***Euzko-go Zeruko Argia, Egan*** *y* ***Olerti.***

Tradujo al vascuence la obra poéti Fray Luis de León y San Juan de la Cr las publicó en el libro titulado ***Musika*** *(1962), con un apéndice sobre métrica Obra que fue muy ponderada en su día p colás Ormaechea "Orixe", Luis Mich José de Arteche y otros.*

A "Gaztelu" se le debe la elaboración dacción del ***Diccionario Español-Vasco*** *editorial Auñamendi (1965-1975), re bajo la promoción y dirección de Bernardo tornés Lasa, del que han aparecido seis que abarcan de la A a la C, y dejó otra porte confeccionada para la publicación.*

Pero, repito, que lo más importante aportación a la literatura vasca ha sido la sía. Además de sus colaboraciones en las das revistas, hemos de recordar que fu veces premiado en los concursos literarios mio Ciudad de Irún, en poesía en euskara serían publicados en los libros ***Gauean*** *(1972) cuya temática se centra principal en los tristes sucesos de la guerra de Vietn* ***Biziaren erroetan*** *(1972), basado en sus riencias de la vida, identificada con su p su lengua y su entorno existencial, con u lismo desgarrador. Posiblemente, es en obra donde "Gaztelu" alcanza una dim poco común en la poseía vasca, cuando f el género mejor desarrollado en vascuence.*

Juan Ignacio Goikoetxea había nacido pueblecito de Gaztelu, en Gipuzkoa. Profe la Orden capuchina, sufrió largos años d liado en Argentina, para regresar en convertido en sacerdote, y el resto de su ha transcurrido en San Sebastián, hasta llecimiento el pasado día 6 de enero.

Era miembro correspondiente de Eus tzaindia y persona muy querida por cuantos llegaron a tratarle.

Irazki ta Bilbea

Bi hitz hauk' dudarik gabe euskal kulturlexikoaren elhe zaharrak dira, eta oso important da heien etymona, zeren biak ehulearen tekhenêari bait dagozkio. Latinez ere **textum** hitza batera **oihala** da, eta autore batek iratzi phrasien bilduma. Euskarazko irazki hitza ehulearen tekhnêan (hau da: hyphantikêan) ehun baten ekhoiztekotz' goitik behera ezarten diren harien izena da. Eta euskaraz **bilbea,** anezka baten bidez irazkiaren harien artean sartzen den hariaren izena da.

Iratzi verbua' **scribere** edo **graphein** hitzen zentzuaz euskaraz bethi **r** batetaz ongi orthographiatzen zen, norbaitek hitz huntan, bertze batzuetan bezala, euskal letra batzu kakographiatzen hasi zeno. Azkuek' bere hiztegian **iraatsi** formaz dakhar, eta Bizkaiko hitza dela dio, beraz hitz hunen egiazko forma **irâtsi** izan ziteken. Eta hitz huntan verbuaren erroa **−raz−** dela ikhusten ba dugu, berehala burura ethorten zaiku, nola sumerkaraz, hau da, iraztearen tekhnêa asmatu zuen herriaren hizkuntzan verbu hunen erroa **−SAR−** den, eta hitz hau euskarazko ahoskatzeari hulbilago **−zar−** forman legokeon. Zentzu huntan aiphagarria da, nola sumertarrek beren hizkuntza lehen epokhan irazki baten hariak dihoazen bezala irazten zuten, hau da goitikbehera, eta geroz hunelako kiônen antzeko zingolak eskuinaldetik hasita' bata bertzearen atzean ezarten zituzten. Beraz ehun batetan irazkiek duten egokeran esekita bai legoz.

Huni aitzi, graikoek beren lehen irazteko tekhnêan hitzak lerro paralleloetan ezarten zituzten, eta lehen lerroa ezkeraldetik eskuinaldera iratzita ba zegoen, bigarrena viceversa eskuinaldetik ezkerraldera zihoan. Irazteko systêma huni bustrophêdon izena emaiten zeraukoten, zeren idiek lurra lantzen dutenean hildoak egiteko' joaiten diren bidearen anzokoa bait da. Berhain bide hau' bilbea aphailatzekotz tutak egiten duen bidearen ibilkera ere bai ba da.

Sumerkarazko taulatiletan ere' irazteko systêma geroago aldatu zen 90 mailatako gyro batetaz, eta geuk orain duguna bezalakoa bilhakatu zen, hau da: parallelki dihoazen lerroen systêma, guztiak ezkerraldetik eskuinaldera joaiteaz, eta ez bustrophêdon systêman bezala, non bakhotxiak zentzu batetan dihoazen eta bikhotxiak huni aurkhakoan. Graikoek ere laister anzo hau onhartu zuten.

Halakotz' euskaldunek **graphein, scribere** erraitekotz **iratzi** hitza erabilten ba dute, **bilbe** hitza neuk' askotan **biblion** graikarazko hitzaz ethorki berdineko zela uste ukhan dut. Ba dakit nola bethidanik **biblion** hitza **biblos** hitzetik dathorrela erraiten den, eta **biblos** papyroaren kortikaren barnako zathiaren izena den. Hunaino hitz hunen etymologia ongi legoke, bainan hemendik aurrera erraiten da nola hitz hunen etymona' Phoinikaren izbazterrean, Berytoren ipharraldean dagoen hiri batetatik lethorren. Ezen graikoentzat hortik papyroa ethorten zitzaien. Byblos hiriaren izenaren forma autokhthônoa **Gubla,** zen, bainan nehoiz ere ez nezaken hulert zergatik garaikoek Aigyptuan ekhoizten zen produktu bati, Aigyptuko mugatik anhitz kilometro urrudurik dagoen hiri baten izena eman ziezakeoten; baldin eta huntaz gainera produktu hau' artekariengabe herrialde ekhoiztelik importatzen ba zuten. Nire aburuz hemen produktuak' −zeintaz egina bait ziren−, liburei izena eman ziezakeen, bainan produktu hunen izenari ez dathorko bere etymona, portu-hiri baten izenetik, nondik-eta exportatzen bait zen. Halarik ere Aigyptuan ehunak bilbatzekotz erabiltzen ziren harien ekhoizteko hartzen zen zuntz baten izena izan ziteken,

Halakotz' nola euskarazko **i−ratz−i** sumerkarazko **−zar−** verbuzko erroaz azkazi izan liteken, halatan ere euskarazko **bilbe** elhea, garaiko-aigyptuzko **bibl−os** elhearen askazia izan liteke. Sanskritaraz **tantra** hitza euskarazko **bilbe** elhearen itzulpena ba da, huntara ere **liburu** hitzaren erran-nahia daduka. Hunela erraz ikhusten dugu nola ehungintza ta liburugintza ethorkiz herrialde askotan elkharturik zegozen.

Eta liburgintza ta kulturgintza' ehungintzan bezala ere eraturik zegozen zeren herri batentzat irazki baten arauera' herri-kultura bait dago. Kultur hau' ahoz-aho emana bait da, kultur akustikoa dela erran genezake (hortakotz ere, hitz hauietan orthographia' ahoskatzearen menpekoa da), baina hunen gainean bethi goi-kultura ehuten da. Eta goikultura hau' gaur egunean mundu osoan laur kultur-kykloen enborren anzora eraturik dago, alegia: garaikara, arabara, txinara tasanskritarazkoak, eta egiazko goi-kulturaren hitz guztiak hizkuntza hauietarik ere kulturhizkuntza berriek hartzen dituzte; eta egiazko kultur-hizkuntzak diren ber, hitz hauk' optikoan direlako, kultur enborretatik jalgi diren adar-kultur hizkuntza barriek' enbor-hizkuntzaren (gure kasuan: garaikarazko) forma originaleez irazten dituzte. Dudarik gabe gaur egunean kultur izpirituzko horren para' hizkuntza modernoetan hitz tekhnikoak sorthu dira. Elhe hauk bethi' tekhnêma sortharazi duen personaren hizkuntzanfinkaturik egoiten ohi dira, eta nola gaur egunean tekhnikêa aurreratu duten herriak' anglo-saxoinak eta alemanoak izanik bait dira, halatan hitz tekhniko berriak' ber heiek asmatu dituzte, eta heien hizkuntzen araura moldaturik dagotza. Beraz hemen kultur oihal huntan hirugarren elemendu berri bat sartzen da. Soilik kolonizatu herriek' zapaltzaileen hizkuntzatik hitzak hartzen dituzte, eta hau' beren kultur-kolonialismoaren froga ezinbertzea da. Huntara herri mi minoritarioetan kulturan izpiritu praube batzu baizik ez diren quasi-intellektualek' kultura zer den eta erdarakada mordoilozkoa zer den jakin gabe' beren ez-jakinaz hizkuntza nazionala endekarazten dute. beren mordoilozko izpirituaz mordoiloa baizik ematen ez bait dute, eta herri osoa bere osotasunean minorizatzen dute.

Federico KRUTWIG SAGREDO

Las palabras ***irazki*** *y* ***bilbe*** *vascas, parece que podrían corresponder a ese 25 por ciento de términos que forman el fondo cultural propio que tendríamos en euskara, puesto unas tres cuartas partes del léxico corrien euskara es de origen latino, o griego lat zado. Y es interesante examinar estas dos p bras, que en principio están relacionadas con arte del tejedor, pero que por extensión aplicó al arte de la escritura. La propia p bra latina* ***textum*** *no quiere decir otra cosa tejido. En vasco* ***irazki*** *es la* ***urdimbre,*** *verbo* ***iratzi (o irazi)*** *que tiene bastantes fi ficados diferentes, entre ellos tiene el de es decir: colocar los hilos verticales en el mientras que* ***bilbatu*** *es* ***tramar.*** *Azkue, diccionario, trae la palabra* ***iraatsi,*** *en vez* ***irâtsi,*** *para indicar* ***escribir.*** *Y ésta ha sido única forma conocida para indicar la acción escribir, antes de que alguien modernam procediese a kakografiar, este término (que como deberíamos llamar al dar falsas gra las palabras), y pusiese en esta palabra por la* ***r.***

Y podríamos ver en esta palabra vasca término antiguo de alta cultura, puesto que raíz sumeria, lengua de los inventores de la escritura, es ***−sar−*** *(cuya pronunciación cercana en vasco sería* ***−zar−****), que sería misma raíz vasca, pero con metátesis. Y es destacar que* ***iratzi*** *sea* ***urdir,*** *puesto que la mitiva escritura sumeria se efectúa en colu nas (es decir: de arriba abajo y luego de cha a izquierda, hasta que en sus posteriores, recibiendo un giro de 90 gra quedara en líneas paralelas escritas de quierda a derecha. La escritura griega el cípio se efectuaba siguiendo al ritmo de la zadera, una fila de izquierda a derecha, siguiente en sentido contrario. Sistema que llamó* ***bustrophedon*** *(es decir, que sería arado), aunque tanto o más recuerde al cru de tramar.*

La palabra ***bilbe,*** *en cambio, me ha parec siempre que estaba relacionada con la de* ***os,*** *que en griego es el nombre de la corteza terior del papiro. Sé muy bien que se dice tomó este nombre de la ciudad de* ***Biblos,*** está al Norte de Beirut, pero que en lengua tóctona se llama* ***Gubla.*** *Es decir, que se producto el nombre del puerto de origen pesar de los siglos de vigor de esta etimo no me ha convencido mucho.*